



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko martxoaren 17an

28 ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Euri-jasek eta kazkabarrak Azagran sortzen dituzten arazoei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- Euriteak direla-eta eman diren laguntzengatik Valtierran hustu diren etxeetarako egin den aurreikuspenari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Tafallako industrialdeko udalez gaindiko planaren tramitazioari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Urdian-Altsasuko industrialdeko udalez gaindiko planaren tramitazioari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Eskualdeetako industrialdeetara gasa eramateko planei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Mendi Atalari atxikitako langileei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- 1997-2000 urteetarako Plan Gerontologikoaren garapenari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- 1997-2000 urteetarako Plan Gerontologikoa ezartzeko eta jarraitzeko faseak betetzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Irunberriko hegaldi-zentroari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Arrantzarako lizentzien kopuruari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).

I SAILA:

Parlamentuko Jarduera:

- 2001eko otsailean egindako bilerak (12. or.).
- Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean 2001eko otsailean sartu diren dokumentuen zerrenda (17. or.).

F saila:
GALDERAK

Euri-jasek eta kazkabarrak Azagran sortzen dituzten arazoei buruzko gal-dera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak euri-jasek eta kazkabarrak Azagran sortzen dituzten arazoei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko irailaren 26ko 75 zenbakiko Nafarroako Parlamen-tuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko urriaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parla-mentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluan eta ondokoetan ezarritakoaren babesean, idatziz erantzuteko galdera egin du euri-jasek eta kazkabarrak Azagrako mendian sortzen dituz-ten arazoei aurrea hartzeko Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1. Zer aurreikuspen tekniko egin du Nafarroa-ko Gobernuak Azagran mendialdeko luizi eta harri erorketek sortzen dituzten arazoak konpontzeko? Zer egutegi du obrak egiteko?

Nafarroako Gobernuak 1982ko irailaren 11n hartutako Erabakiaren bitartez deklaratu zen zen-bait herritako –haien artean Azagrakoak– harri-lubetak zuzentzeko obrak, guztiz finantzatu ahal izanen direla toki entitateen partaidetza funtsaren kargura, eta nahi duten udalek arlo horretako eskumenak Nafarroako Gobernuaren eskura uzten ahal izanen dituztela. Hala bada, haien kontratazioa eta exekuzioa Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak eginen ditu.

Horretarako, Departamentuak kasuan kasuko proiektuen erredakzioa kontratatzeari ekin zion;

Azagrakoa 1985eko abuztuan eskuratu zuen, hain zuzen ere.

Azagrako harri-lubetan zuzenketa neurriak jar-tzeko obren garestia zela eta, 6 fase ezarri ziren. Haietako lehenbiziko bostak ondorengo urteetan egin ziren, beste herri batzuetako obrekin batera, lurretan zegoen arriskuaren eta erabilgarritasuna-ren arabera. Azagran egindako obren azken fasea 1992ko abenduan egin zen. VI. fasea egin gabe dago.

Zuzenketa obren VI. fasean "La Peña" izeneko lubetako goialdeko lurrak erauzteko lanak aurrei-kusi ziren; izan ere, lubeta horren egonkortasuna arriskuan jartzen duten zenbait pitzadura daude. Fase hori aurrera eramateko beharrezkoa zen lehen III. fasea izenaz ezagutzen duguna exeku-tatzea, hain zuzen ere, berez nahiz VI. faseko obrak egiterakoan gerta daitezkeen luizien aurka-ko babes-ezponda bat egitea.

VI. faseari dagozkion obretan, 1985eko abuz-tuan eginiko proiektuari jarraituz, 145.398 m² lur erauzi beharko dira. Kontrata bidez hori exekuta-tzeko aurrekontua 90.295.919 pezetakoa da.

III. fasea 1992an exekutatu zenean, babesturik geratu zen VI. faseko obren xedea zen lubetako balizko luiziek eraginen luketen eremua; horren-bestez, kalterik jasateko arriskua murriztu baitzen, larritasun handiagoko beste obra batzuk egin dira. Izan ere, VI. faseko obren kostu handiak era horretako gainerako obra guztiak baldintzatuko zituen, haiek exekutatzeke aurrekontuak dagokion kontusailaren urteko kopurua gainditzen baitu.

1997ko ekainean Nafarroako Foru Komunitate-ko eta haren erakunde autonomoetako Adminis-trazioaren dirulaguntzak eman, kudeatu eta kon-trolatzeko araubide orokorrari buruzko 8/1997 Legea onetsi zenez, obra horiek exekutatzeke sistema aldatu egin da: udalek egin beharreko obrei dagokien dirulaguntza eskatu beharko dituzte, eta

eskariarekin batera, alde batetik proiektua eta Ingurugiro Kalitatearen Zerbitzuaren aldeko txostena, eta bestetik egin beharreko obren beharra adierazteko Departamentu honen txostena aurkeztu beharko dituzte.

Garrantzitsua da zehaztea harri-lubeten obrak eta segurtasuna udalen erantzukizuna direla guztiz, baina udalak Nafarroako Gobernuari behar diren laguntzak eskatzen ahalko dizkiola, dirulaguntzen bitartez lubetak egonkortzeko obrak egin ahal izateko.

Harri-lubetak egonkortzeko obretarako dirulaguntzen aurtengo deialdira arte, Azagrako Udalak ez du laguntzarik eskatu obrak egiteko. Aurtengo ekainean, Azagrako Udalak idazki bat aurkeztu zuen "La Peña" lubetako azken faseko obrak exekutatzea eskatzen zuena, baina ez zuen deialdian eskaturiko dokumentazioaz besterik ekarri. Horrenbestez, ez da ontzat jo aurtengo ekitaldian dirulaguntzarik ematea.

1985eko proiektua gaindituta dago honezkero, ez baitago egokiturik egun eraikuntza obretarako dauden segurtasun arauetara edo ingurumen arauetara; beraz, beste proiektu bat behar da. Lubeta xeheki aztertu behar da, eta hasierako proiektuko obren beharra aztertu beharko da; izan ere, urteen poderioz, ikus daiteke halako bilakera bat izan dela, eta ikuspegi berri batekin ekin dakiokela lanari, alegia, proiektuan agertzen zena baino lurrerauzketa txikiagoa egitearekin aski izan daitekeela.

Azalduko dela eta, egungo arauetara jarraituz, Azagrako Udalak behar den dirulaguntza eskatu

beharko du 2001eko deialdia argitaratzen denean, eta hartan eskatzen diren agiriak aurkeztu beharko ditu, hau da, proiektu eguneratu bat, Ingurugiro Kalitatearen Zerbitzuak emandako txostena eta Departamentu honen txostena.

2. Aurreikusi al da mendiaren magalean lurre-rauzketak egitea solterik dauden lur eta harriek sortzen duten arriskua ekiditeko?

Azaldukoarekin bat, udala da aurkeztu duen proiektuari dagokion dirulaguntza eskatu behar duena: gainerako eskariekin batera aztertu da udalak aurkeztutakoa, diruz lagundu beharreko obren lehentasunen ordena ezartzeko.

3. Uste al du Nafarroako Gobernuak kolektore lana egiteko eta menditik datozen urak biltzeko ezpona handi bat egin beharko litzatekeela, ura herriko saneamenduko kolektoreetara joan ez dadin? Beharrezkoa al litzateke saneamenduko sareak handitzea eta malda handiagoa ematea haien ibilbidean, lokatz eta lurren pilaketak eragotzi eta horiek garbitzea errazteko?

Lubeta egonkortzeko obrek ez dute batere loturarik urak biltzeko obrekin; azken horiek Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren eskumena dira, eta ez dute inongo eraginik orain dela gutxi gertatutakoaren antzeko lur-arrastaketak ekartzen dituzten uholdeetan.

Iruñean, 2000ko urriaren 10ean

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

Euriteak direla-eta eman diren laguntzengatik Valtierran hustu diren etxe- etarako egin den aurreikuspenari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak euriteak direla-eta eman diren laguntzengatik Valtierran hustu diren etxeetarako egin den aurreikuspenari buruz egingako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko irailaren 26ko 75 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko urriaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carolina Castillejo andreak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluan eta ondokoetan ezarritakoaren babesean, idatziz erantzuteko galdera egin du euriteak direla-eta eman diren laguntzengatik Valtierran hustu diren etxeetarako aurreikuspenari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1. Zer egin du Nafarroako Gobernuak Erriberako herri horretan?

1998ko abuztuan, Herrilan Departamentuko teknikariek, Udalak eskatuta, Valtierrara eginiko bisitaren ondorioz, txosten bat egin zuten. Haren arabera, beharrezkoa zen udalak aztertzea erretan egiten ziren presen arazoa, arazo horien balizko arrazoia izan zitekeelako, bai eta ondorioak ere. Halaber, udalari jakinarazten zitzaion, behar ziren bideratze lanak eta horretarako azterlanak eta proiektuak egiteko dirulaguntzarik baze-goela. Ez dugu jakin udalak ezer egin duenik.

2000ko urtarrilaren 20an, Geologi eta Geotekni Atalaren txosten bat bidali zitzaion udalari. Hartan, Aparejadoreen Elkargoko Laborategiak eginiko azterlan baten emaitzak aztertu eta jarraibide batzuk ematen ziren zorua egonkortzeko zementua txertatuz, betiere eraikinei eusteko, asentamenduen arrazoiak ikertuko zituen azterlan sako-nago bat egin bitartean.

Beranduago, 2000ko martxoan, udalak Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari eskatu zion lurzoruko asentamenduen arrazoiak aztertzeko. Geologi eta Geotekni Atalak jarduketa batzuk proposatu zitzaion udalari; besteak beste, urtebetez maila freatikoa neurtu eta kontrolatzeko zundaketak egitea –asentamenduak sortzen dituzten uren jatorria ezagutzeko–. Proposamen hori 2000ko martxoaren 27an helarazi zitzaion udalari.

Esan beharrezkoa da Valtierra inguratzen duen bidea egokitu egin zela, errepidearen desbideraketa alternatiboa izan zedin, 1989 eta 1990. urteetan Valtierrako zeharkalea berritzen zen bitartean. Bide hori udalaren eskumenpekoa da, eta hodi zeharrek dauzka inguruko erreketako urak kanporatzeko; hala eta guztiz ere, jakina da hodi horiek itxita daudela. Haien garbitu eta mantentzea udalaren ardura da.

2000ko ekainean, Herrilan Departamentuak Valtierrako Udalari idazki bat igorri zion; haren bitartez jakinarazten zitzaion komeni zela erreketako uraren zirkulazioa lubetetan zehar bideratzea, urak ez daitezen barneratu. Izan ere, behin betiko daturik ez badago ere, neurri hori oso onuragarria da.

Jarduketan proposamenean aurreikusitakoa-
ren arabera, orain arte bederatzi zundaketa egin dira, eta dagoeneko hodiak ere jarri dira maila piezometrikoko kontrolatzeko. Lortzen diren datuekin, lurraren disoluzioa eta garbiketa sorrarazten duten uren jatorria –horrenbestez, asentamenduen jatorria– ezagutu nahi da.

2. Zer egiteko asmoa du?

Behin informazio guztia daukagunean, mugimenduen arrazoia eta haien saihestu eta ukituriko zorua egonkortzeko bitarteko egokienak bilduko dituen irizpen bat egingen da.

Iruñean, 2000ko urriaren 10ean

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

Tafallako industrialdeko udalez gaindiko planaren tramitazioari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak Tafallako industrialdeko udalez gaindiko planaren tramitazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko urriaren 2ko 77 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko urriaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak, idatziz erantzuteko galdera egin du Tafallako industrialdeko udalez gaindiko planaren tramitazioari buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagoitia Ripoll andrearen erantzuna:

1. SEPESek –bera baitzen industrialdearen promotorea– aurtengo ekainaren 26an igorri zuen udalez gaindiko eraginari buruzko plana, behar zuen tramitazioa egiteko. Gaur egun, hasierako onespena eman gabe dago.

2. Azarorako aurreikusita dago udalez gaindiko eraginari buruzko planaren hasierako onespena. Ondoren, NAO n argitaratuko da eta behar den jendaurreko epea, alegazioetarako eta abar zabalduko dira. Heldu den udaberrian eman ahal izanen zaio behin betiko onespena. Horrek bidea emanen du desjabetzapenak egiteko eta urbanizazio proiektua onesteko espedienteak hasteko. Azkenik, obrak adjudikatzekeko prozesua eta gero,

udan kontratu ahal izanen dira; betiere, aintzat hartu beharko dira aurreko etapetan gerta daitezkeen gorabeherak.

3. Obrak kontratatu ondoren.

4. Industrialdeak, eskualderako izateaz gainera, bi udalerritan du eragina: Erriberrin eta Tafallan. Udalez gaindiko kudeaketak kasu horretan, udalez gaindiko eraginari buruzko planaren tramitaziotik beretik, eragin zuzena du udal mugetan; hain zuzen ere, saihestu nahi da industriako lurzati bat aldi berean bi udalerritakoa izatea. Izan ere, udal dermioak aldatzeko aukera adierazi da, baina bi udalek onetsi beharrekoa.

Bestalde, ukituriko udalek kudeaketa mankomunatu egiteko eredu baten aukera ere badago; eredu horren norainokoa zehaztea haien borondatearen eta haien arteko akordioen baitan baizik ez dago. Hala balitz, hitzarmen batez gauzatu beharko litzateke. Nolanahi ere, Nafarroako Gobernuak litekeen jarrerarik onena dauka eredu hori garatzen laguntzeko, bi aldeek hala nahi badute. Udalez gaindiko eraginari buruzko planaren tramitazioak ez du inolako aukerarik baztertzen.

5. Industrialdearen exekuzioa behingoan egitea aurreikusita dago, eremuaren tamaina egokia dela eta hartan sarturiko guneen artean bereizketarik ez dagoelako, udalez gaindiko eraginari buruzko planak agertzen duen bezala. Hori dela eta, inbertsio guztia egitea justifikaturik dago, betiere dauden beharrei erantzuteko zenbateko finantza baliabide emanen diren jakiteko helburua alde batera utzi gabe.

6. Behingoan egingen da.

Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagoitia Ripoll

Urdian-Altsasuko industrialdeko udalez gaindiko planaren tramitazioari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak Urdian-Altsasuko industrialdeko udalez gaindiko planaren tramitazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko urriaren 2ko 77 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko urriaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak, idatziz erantzuteko galdera egin du Urdian-Altsasuko industrialdeko udalez gaindiko planaren tramitazioari buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagoitia Ripoll andrearen erantzuna:

1. Udalez gaindiko eraginari buruzko plan sektoriala aurtengo martxoaren 6an igorri zen, behar zuen tramitazioa egiteko, industrialde honi buruzko idatzizko aurreko erantzunean adierazi genuen bezala.

2. Azarorako aurreikusita dago udalez gaindiko eraginari buruzko planaren hasierako onespina. Ondoren, NAO-n argitaratuko da eta behar den jendaurreko epea, alegazioetarako eta abar zabalduko dira. Heldu den udaberrian eman ahal izanen zaio behin betiko onespina. Horrek bidea emanen du desjabetzapenak egiteko eta urbanizazio proiektua onesteko espedienteak hasteko. Azkenik, obrak adjudikatzeko prozesua eta gero, lehen faseko lanak udan kontratu ahal izanen dira; betiere, aintzat hartu beharko dira aurreko etapetan gerta daitezkeen gorabeherak.

Halaber, litekeena da udalez gaindiko eraginari buruzko planaren behin betiko onespina atzeratzea, Zangitu planean sartzeari buruz Altsasuko Udalak duen jarrera ezagutu arte.

3. Obrak kontratatu ondoren.

4. Ukituriko udalek kudeaketa mankomunatua egiteko eredu baten aukera ere badago; eredu horren norainokoa zehaztea haien borondatearen eta haien arteko akordioen baitan baizik ez dago. Hala balitz, hitzarmen batez gauzatu beharko litzateke. Nolanahi ere, Nafarroako Gobernuak litekeen jarrerarik onena dauka eredu hori garatzen laguntzeko, bi aldeek hala nahi badute. Udalez gaindiko eraginari buruzko planaren tramitazioak ez du inolako aukerarik baztertzen.

5. Industrialdearen exekuzioa zenbait fasetan egingen da, alde batetik industrialdearen tamainarengatik, eta bestetik bertan sarturiko bi alderdien ezaugarriengatik, udalez gaindiko eraginari buruzko planean azaltzen den bezala, eta Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariak 1999ko urriaren 15eko agerraldian azaldu zuen moduan.

6. Epeak plan sektorialaren testuan jasotzen dira. 1. exekuzio unitateari dagokionez (Zangituko meandroa, Altsasun), lau urteko epea dago urbanizazio proiektua idazteko. 2. exekuzio unitaterako (Urdiango meandroa) 2 urteko epea dago xede bererako. Epeak, indarreko legearen aginduz, gehienekoak dira. Hori ez da oztopoa izango faseak epe laburragoetan betetzeko, zoruaren beharrak hala exijitzen badu.

7. Aurtengo otsaileko zure galdera parlamentarioari emandako erantzunean adierazi genuen bezala, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak 2000ko otsailaren 21ean eman zuen bere txostena, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak eskatuta.

Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagoitia Ripoll

Eskualdeetako industrialdeetara gasa eramateko planei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak eskualdeetako industrialdeetara gasa eramateko planei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko urriaren 2ko 77 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko urriaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak, idatziz erantzuteko galdera egin du eskualdeetako industrialdeetara gasa eramateko planei buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagoitia Ripoll andrearen erantzuna:

1. Departamentuak aldez aurretik ez du inongo adarrik bazertu. Agerraldietan eta gasa eramateari buruzko galderen erantzunetan azaldu dugun bezala, enpresa-etekinean eragina duten proiektuei buruzko erabakiak hornitzaileek hartzen dituzte. Halakorik gertatzen ez denean, lankidetzak akordioak sinatu izan ditugu, eta haiei esker Nafarroa da gasez hornitzeko sarerik hedatuena duen autonomia erkidegoa. Hori bidea izan da gas-adarrak eraikitzekeko diru-ekarpenen, inbertsioen eta kontsumo-mailen erlazioa egokia eta alde guztietatik onartzeko modukoa zen kasuetan.

Irizpide horrekin ezin da behin-betiko ezer bazertu: une jakin batean bideragarria ez dena bideragarria izatera irits daiteke, adarraren eragin-eremuko eskarrietan aldaketarik gertatzen bada.

Lekunberri dagokionez, aurreko galdera parlamentarioaren erantzunean adierazi dugun beza-

la, "haren exekuzioak Nafarroako Foru Komunitatearen diru ekarpen handia beharko luke, bai kopuru absolututan, bai ehunenekoetan", aurreko akordioetan adostutakoak baino handiagoak betiere. Horrenbestez, egungo datuekin eta dauzlagun lehentasunen hurrenkeran, proiektu hori gauzatzea oso zaila izanen da hurrengo lankidetzak hitzarmen batean ere, baldintzetan aldaketa handiak egiten ez badira, behinik behin.

Bestalde, ekitaldi honetarako beste akordio bat negoziatzea aurreikusita badago ere, nahitaez atzeratuko da hori, besteak beste sektorea liberalizatzeko prozesua azkartu delako, bidesariekin daramagun politikarengatik eta datorren urtearen hasieran tarifen egituran eginen diren aldaketengatik. Ezinbestekoa da informazio hori elkarrizketa ekiteko eta balizko diru-ekarpena zehaztu ahal izateko.

2. Aztertzen ari garen bi alternatiben artean ez dago ia diferentziarik, ikuspegi ekonomikotik. Beraz, alderdi horrek ez du erabakian eraginik izanen.

Plazaolaren antzinako ibilbidea erabiltzeak zenbait abantaila ditu eta kostua ere txikiagoa izanen da desjabetzapenei eta basoberritzeari dagokienez, bai eta ingurumen-eragina murriztearen ikuspegitik ere.

Alabaina, bihurtze ugariko trazadura hori erabiliz gero, ibilbide luzeagoa beharko da; tunelak izatea, bestalde, traba da zangak irekitzeko eta aireztatze sistemak egiteko.

Betiere, oro har, baldintza onenak eskainiko dituen alternatibaren alde eginen dugu, eta horretarako balizko aukerei buruzko azterlan sakonago bat egin beharko da.

Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari: Nuria Iturriagoitia Ripoll

Mendi Atalari atxikitako langileei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Mendi Atalari atxikitako langileei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko urriaren 2ko 77 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko urriaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak idatziz erantzuteko zenbait galdera egin ditu mendien kudeaketari eta Mendi Atalari atxikitako langileei buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1. Zenbat langile daude une honetan Mendi Atalari atxikitak? Zein dira barruti bakoitzeko arduradunak eta haien laguntzaileak?

Egun, 110 pertsona daude Mendi Atalari atxikitak. Hona atal horren egitura:

Langileak:	Kopurua
Atalburua	1
Teknikari funtzionarioak	10
Teknikari kontratudunak	4
Administrari funtzionarioak	5
Administrari kontratudunak	1
Mendi zaindariak	18 (+ 3 lanpostu huts)
Mendi zaindarioak	57 (+ 5 lanpostu huts)
Gidariak	2
Behargin finkoak	4
	110

Egun, atalak dauzkan beharreatatik, ondokoak dira eremu bakoitzeko teknikari arduradunak:

Mendi zaintzak

Kantauri alde - ipar-ekialdea:	
Pablo Muñoz	Leitza, Lekunberri, Ultzama eta Lakuntza
Kantauri alde - ipar-mendebaldea:	
José M ^a Goñi	Bortzirriak, Doneztebe eta Elizondo
Pirinio alde:	
Emilio Martín	Aezkoa, Irati, Erronkari eta Zaraitzu
Pirinio aurreko alde:	
Gregorio Oyaregui	Eugi, Agoitz eta Irunberri
Erdialdea - Iruña:	
Emiliano Fernández	Iruña
Lizarrako iparralde:	
M ^a Carmen Areta	Lizarrako iparralde eta Urbasa-Andia
Erribera:	
Manuel Perera	Lizarrako Hegoalde, Tafalla eta Tuter
Erdialdea - Zangoza:	
Diego Ochoa	Zangoza

2. Egin al du Nafarroako Gobernuak azterlanen bat Nafarroako Foru Komunitatea titularraren mendien kudeaketa pribatizatzeari buruz?

Ez.

3. Aztertu al du Nafarroako Gobernuak toki entitateak edo bestelako administrazio entitateak titular diren mendien kudeaketa udal eta kontzejuei eskualdatzeko aukera?

Ez.

4. Egokia eta nahikoa iruditzen al zaio Nafarroako Gobernuari Mendi Atalari atxikitak dauden langileen kopurua, haiek baitira Nafarroako mendien kudeaketa bidezko egiten dutenak, kontuan hartuta bat baino gehiago direla beren mendiak kudeatzeko kanpoko agenteak kontratatzen ari diren administrazio entitateak?

Gure ustez, ez dago Mendi Atalean nahi dugun kudeaketa arin eta dinamikoa aurrera eramateko behar adina langile. Horretarako, Ingurugiro Zuzendaritza Nagusiaren plantilla organiko berrirako proposamenean, oinarritzko alderdi gisa, justifikatzen eta planteatzen dugu Mendi Atalak Mendi Zerbitzuaren kategoria berreskuratu behar duela, eta teknikari gehiago behar dituela, gutxienez ere behar den hazkuntza bermatzeko.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko urriaren 16an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

1997-2000 urteetarako Plan Gerontologikoaren garapenari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak 1997-2000 urteetarako Plan Gerontologikoaren garapenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko urriaren 2ko 77 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko urriaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak idatziz erantzuteko zenbait galdera egin ditu 1997-2000 urteetarako Plan

Gerontologikoaren garapenari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1997-2000 Plan Gerontologikoaren indarraldia laster bukatuko zela eta, aurtengo azken hiruhilekoan hartan sarturiko neurrien ebaluazioa egingen da. Horietako bakarren bat egindako galdera parlamentarioan aipatutakoa da.

Ebaluazio hori bukatzen dugunean, egindako galdera ia guztiei egoki erantzuteko moduan egonen gara.

Hori guztia jakinarazi dizut, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2000ko urriaren 11n

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

1997-2000 urteetarako Plan Gerontologikoa ezartzeko eta jarraitzeko faseak betetzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak 1997-2000 urteetarako Plan Gerontologikoa ezartzeko eta jarraitzeko faseak betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko urriaren 2ko 77 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko urriaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 1997-2000 urteetarako Plan Gerontolo-

gikoa ezartzeko eta jarraitzeko faseak –alegia, VII. atala– betetzeari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1997-2000 Plan Gerontologikoaren indarraldia laster bukatuko zela eta, aurtengo azken hiruhilekoan hartan sarturiko neurrien ebaluazioa egingen da. Horietako bakarren bat egindako galdera parlamentarioan aipatutakoa da.

Ebaluazio hori bukatzen dugunean, egindako galdera ia guztiei egoki erantzuteko moduan egonen gara.

Hori guztia jakinarazi dizut, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2000ko urriaren 11n

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Irunberriko hegaldi-zentroari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak Irunberriko hegaldi-zentroari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko urriaren 2ko 77 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko urriaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak idatziz erantzuteko zenbait galdera egin ditu Irunberriko hegaldi-zentro bati buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak jarduketaren arabera dagozkion espedienteak aztertzen ditu –oraingo kasuan, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari

buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legeko 42. artikuluan aipatutakoak–, prozedura horretara jo beharrean dauden ekimenen lurralde-ezarpenarekin loturiko alderdiak direla eta. Horretarako, aipatu foru legeko 44. artikuluan ezarritako dokumentazioa aurkeztea exijitzen du Departamentuak. Galderan aipatutako jarduera batean egon daitezkeen gainerako exijentziak ezin dira eskatu, aipatu prozeduretan ezarritakoaren arabera, eta beste leku batzuetan lortu beharrekoak dira. Hori dela eta, ez da Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren egitekoa jakitea oraingo jarduketaren titularrek baduten ala ez Abiazio Zibilaren baimena.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko urriaren 17an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Arrantzarako lizentzien kopuruari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Juan Cruz Alli Aranguren jaunak arrantzarako lizentzien kopuruari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko urriaren 2ko 77 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko urriaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan Cruz Alli Aranguren jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du arrantza barrutien kudeaketari eta Nafarroako arrantzaleen elkarteei buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1. Hauxe da azken datua: 30.641 lizentzia.

2. Kirol Elkarteen Erregistroa ez dago Ingurugiro Departamentuaren menpe; horrenbestez, ezin dizugu aipatu informazioa eman.

3. Prezioak finkatzea ez da arrantzale elkarten eginkizuna.

Barrutietan arrantza egiteko tasak uztailaren 24ko 144/1987 Legegintzako Foru Dekretua aldatu zuen martxoaren 10eko 4/1997 Foru Legean zehaztu zen. Legegintzako Foru Dekretu haren bidez Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa, ordainarazpen parafiskal eta prezioen Foru Legearen testu artikuluduna onetsi zen. Zehazki, 171. artikuluan 1.000 pezetako tasa ohikoa ezarri zen; tasa murriztua, berriz, 500 pezetakoa da.

2000. urtean Nafarroan indarra izanen den arrantzarako berriazko arautegia finkatzen duen otsailaren 21eko 181/2000 Foru Aginduan zehaztuko da zein barrutitan eta zein talderi aplikatuko zaien ohiko tasa edo tasa murriztua.

4. Basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legeko 86. artikulua ezarri zuen aukera

dagoela arrantzaleen elkarteei arrantza barrutien ustiaketa esleitzeko, eta esleipen horretarako baldintzen pleguan jaso beharreko datuak aipatzen ditu. Baldintza horien artean dago arrantzaleen elkarteak gutxienez baimenen % 60 gorde behar dituela kanpoko arrantzaleentzat.

5. Oinarrizko eginkizuna da barrutian arrantza egiteko baimenak banatzea, betiere barruti bakoitzerako Nafarroako arrantza urtero araupetzen duen foru aginduari eta esleipen baldintzei jarraituz. Halaber, barrutiaren funtzionamendu zuzenerako behar den zaintza edukiko du, eta laguntza eman beharko dio Biodibertsitatea Zaintzeko Zerbitzuari barrutia parte deneko ibaian egiten diren arrain-birpopulazteetan edo arrantza-kontrolatan.

6. Printzipioz, esan behar da arrantza-barrutien aprobetxamendua kudeatzeko baldintzak Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak finkatzen dituela, eta arrantzaleen elkarteek baimenen banaketa kudeatu, barrutia zaindu eta harrapaketak kontrolatzen dituztela. Oro har, zerbitzu hau ados dago elkarteek arrantza-barrutietan daramaten administrazioarekin.

7. 2000ko arrantza-aldirako, zenbait arrantza-barrutitako kudeaketaren esleipena luzatu zen, bi arrazoiengatik luzatu ere: arrantza-barruti guztien esleipenaren bukaera bera izan zedin eta esleipen baldintzek barrutien kudeaketa beste urte batez luzatzeko aukera aurreikusten zutelako.

Hori dela eta, hurrengo urterako eginbehar bat dugu: beste lehiaketa bat egitea edo departamentuak zuzenean kudeatzea. Ez dugu erabakirik hartu, oraingoz. Erabakia hartu baino lehen, Arrantzarako Aholku Batzordean hitz egiten dugu gaiari buruz, hurrengo arrantza-aldirako beste gai batzuk aztertzeaz gainera, urtero egiten den bezala.

Hori guztia jakinarazi dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko urriaren 11n

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

I saila:
PARLAMENTUKO JARDUERA

2001eko otsailean egindako bilerak**MAHAIA**

21ean.

MAHAIA ETA ELEDUNEN BATZARRA

5, 12, 19 eta 26an.

OSOKO BILKURA

8an.

– a) Aprobación, si procede, de la tramitación directa y en lectura única del proyecto de Ley Foral de modificación de la Ley Foral 13/1994, de 20 de septiembre, de gestión de los residuos especiales.

b) Debate y votación del proyecto de Ley Foral de modificación de la Ley Foral 13/1994, de 20 de septiembre, de gestión de los residuos especiales.

– a) Aprobación, si procede, de la tramitación directa y en lectura única del proyecto de Ley Foral por la que se modifican parcialmente la Ley Foral 19/1992, de 30 de diciembre, del Impuesto sobre el Valor Añadido y la Ley Foral 20/1992, de 30 de diciembre, de Impuestos Especiales.

b) Debate y votación del proyecto de Ley Foral por la que se modifican parcialmente la Ley Foral 19/1992, de 30 de diciembre, del Impuesto sobre el Valor Añadido y la Ley Foral 20/1992, de 30 de diciembre, de Impuestos Especiales.

– Toma en consideración, se procediese, de la proposición de Ley Foral de modificación de la Ley Foral 16/1986, de 17 de noviembre, reguladora de las elecciones al Parlamento de Navarra, presentada por el G.P. Convergencia de Demócratas de Navarra.

– Toma en consideración, si procediese, de la proposición de Ley Foral de modificación de la Ley 8/1999, de 16 de marzo, del Consejo de Navarra, presentada por el G.P. Convergencia de Demócratas de Navarra.

– Debate y votación de la moción por la que se insta al Gobierno de Navarra a desarrollar un plan de actuación de reforma de hospitales, presentada por el G.P. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua.

– Debate y votación de la moción por la que se insta al Gobierno central a suprimir las Empresas de Trabajo Temporal, presentada por el G.P. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua.

– Debate y votación de la moción por la que se insta al Gobierno de Navarra a firmar un acuerdo de colaboración entre el Departamento de Economía y Hacienda y el Consorcio EDER de desarrollo de la Ribera, presentada por el G.P. Socialistas del Parlamento de Navarra.

– Debate y votación de la moción por la que se solicita al Gobierno de Navarra iniciar los trámites para convocar un referéndum sobre el uso de las Bardenas, presentada por el G.P. Euskal Herritarrok.

– Ratificación de la declaración política en relación con el polígono de tiro de las Bardenas, aprobada por la Junta de Portavoces el día 18 de diciembre de 2000.

– Interpelación sobre la modificación del Decreto Foral 135/1994, que regula el uso del vascuence en las Administraciones Públicas, presentada por el G.P. Euskal Herritarrok.

22an:

– Elección del Defensor del Pueblo de la Comunidad Foral de Navarra.

22an:

– Debate y votación de las enmiendas a la totalidad presentadas al proyecto de Ley Foral por la que se establece la cuantía y fórmula de reparto del Fondo de Participación de las Haciendas Locales en los tributos de Navarra.

– Debate y votación del dictamen aprobado por la Comisión de Economía, Hacienda y Presu-

puestos en relación con el proyecto de Ley Foral sobre incentivos fiscales a la investigación, desarrollo científico y tecnológico e innovación y al fomento del empleo.

– Toma en consideración, si procediese de la proposición de Ley Foral de modificación de los artículos 20.c), 23.c) y 148 del Decreto Foral 287/98, de 28 de septiembre, modificado por el Decreto Foral 621/99, por el que se regulan las medidas de apoyo en materia de vivienda, presentada por el G.P. Socialistas del Parlamento de Navarra.

– Debate y votación de la moción por la que se exige al Gobierno de Navarra informar acerca de la muerte de ovejas en Nepal, presentada por la Sra. Rubio Salvatierra.

– Debate y votación de la moción por la que se insta al Gobierno de Navarra a incentivar la firma de un convenio único para los trabajadores de los centros públicos gestionados por empresas con ánimo de lucro, presentada por el G.P. Convergencia de Demócratas de Navarra.

– Debate y votación de la moción por la que se insta al Gobierno central a cumplir los compromisos de Kioto sobre emisiones de gases de efecto invernadero, presentada por el G.P. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua.

– Debate y votación de la moción por la que se rechaza la utilización de las cadenas y de los signos exclusivos de Navarra por parte del Gobierno vasco, presentada por el G.P. Unión del Pueblo Navarro.

– Debate y votación de la moción por la que se insta al Gobierno de Navarra a derogar el decreto que regula el uso del vascuence en las Administraciones Públicas, presentada por el G.P. Euskal Herritarrok.

– Interpelación sobre el almacenamiento de harinas cárnicas en el vertedero de El Culebrete, de Tudela, presentada por la Sra. Rubio Salvatierra.

FORU ARAUBIDE BATZORDEA

1ean:

– Elección de Presidente.

– Elección del candidato a Defensor del Pueblo.

TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEA

1ean:

– Idazkaria hautatzea.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bitartez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Mendillorri Iruñean sartzeko hitzarmena bete dezan.

1ean:

– Lan bilera. Bertan Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko ordezkari tekniko eta politikoen eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak NUP-NUKF-Nafarroako Gobernua lan-taldean dituen ordezkari teknikoek eginen dute agerraldia, Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoak zenbat den eta nola banatuko den 2001etik 2003ra bitarteko aurrekontuetan ezartzen duen Foru Lege proiektuari buruz informatzeko

LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO BATZORDEA

2an:

